

Seoul Philharmonic Orchestra, asiar orkestra nagusienetako bat, estreinakoz ariko da Musika Hamabostaldian, klasikoak, erromantikoak eta korear musika berria dakartzala

- **Gaur asteartea eta bihar asteazkena Kursaal Auditorioan emango dituen bi kontzertuak orkestraren titularra den Jaap van Zwedenek zuzenduko ditu.**
- **Bomsori Kim biolinaren izarra bakarlari gonbidatu ariko da gaur, Mendelssohnen *Biolinarako Kontzertua* interpretatzeko.**
- **Easo Abesbatzak eta nazioarteko lau abeslarik, tartean Matthias Goerne, parte hartuko dute bihar Beethovenen 9. *Sinfonia* ezagunean.**
- **Sarrerak: quincenamusical.eus webgunean eta Kursaleko eta Victoria Eugenia antzokiko leihatiletan.**

Gaur asteartea, abuztuak 25, eta bihar, asteazkena, abuztuak 26, Musika Hamabostaldiak lehen aldiz hartuko du **Seoul Philharmonic Orchestra**, Asiako orkestra sinfoniko handienetako bat. Programa bikoitzean, **Mozart eta Beethovenen** vienar klasizismotik **Hego Koreako eta Estatu Batuetako musika garaikidera** doazen partiturak interpretatuko ditu, bere moldagarritasuna erakutsita. **Jaap van Zweden** musika-zuzendariaren gidaritzapean eta **Bomsori Kim** biolinista, **Easo Abesbatza eta nazioarteko ahots-laukote bat, Matthias Goerne barne**, lankide direla, bi kontzertuak aurtengo Hamabostaldiko mugari sinfoniko-koraletako bat izango dira. Bi emanaldiak **20:00etan** hasiko dira **Kursaal Auditorioan**. **Sarrerak quincenamusical.eus webgunean eta Kursaleko eta Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan** eros daitezke.

1945ean sortua, **Seoul Philharmonic Orchestra (SPO)** Hego Koreako orkestrarik beteranoenetako eta ospetsuenetako bat, herrialdeko enbaxadore kultural gisa sendotu da, birei, konpositore garaikide korearren lana bultzatzeari, grabazioei eta estreinaldiei esker. 2005ean fundazio independente bihurtu zenean, modernizazio artistikoko eta nazioarteko hedapen-aro bati ekin zion, eta Deutsche Grammophonekin kontratu eksklusiboa sinatu zuen, besteak beste; lehenbiziko aldia zen asiar orkestra batek halako akordio handi bat sinatzen zuela alemaniar zigiluarekin. Orduetik, SPOk munduko bakarlari eta zuzendari garrantzitsuenetako batzuekin lankidetzan dihardu eta programazio-ildo sendo bat garatu du, errepertorioko klasiko handiak enkargu eta musika garaikideko estreinaldiekin tartekatuta. Gauzak horrela, Seul mundu mailako mapa sinfoniko globalean kokatzea lortu du orkestrak. Hamabostaldian jardun ondoren, orkestra Meranon (Italia) eta Amsterdameko Concertgebouwen ariko da, Europan barrena egiten ari den biran.

Bi kontzertuetan **Jaap van Zweden**-ek zuzenduko du orkestra. Amsterdango Concertgebouw Orkestrako kontzertino gisa bikain hasi ondoren, zuzendari nederlandarra nazioartean ospe gehien duen batutako bat bihurtu da azken hamarkadetan. Hong Kongeko Filarmonikoan (2018 – 2024) egon ondoren, Van Zweden New York Philharmonic orkestra ezagunaren musika-zuzendaria izan zen. 2024ko urtarrilean bere gain hartu zuen Seoul Philharmonic-en zuzendari titular izateko ardura eta egun gutxi batzuk falta ditu Radio France-ko Orchestre Philharmonique-ko musika-zuzendari bihurtzeko (irailaren 1etik aurrera). Bereziki ezaguna da maisu erromantiko handien bere irakurketen intentsitateagatik — Beethoven, Brahms, Mahler, Wagner... — eta baita musika garaikidearekiko konpromisoagatik ere. Seulen biziki jardun du orkestraren nazioartekotzean eta mundu osoko bira ugaritan, Koreako talentua bultzatu eta hedatzea helburu hartuta. Seoul Philharmonic Orkestraren proiektu diskografiko handienetako bat Gustav Mahlerren sinfonien ziklo osoa grabatzea izango da.

GAUR, abuztuaren 25a

Ilunpetik argirainoko ibilbidea proposatzen duen **egitaraua Jung Jae il** konpositore eta multiinstrumentistaren lehenbiziko obra sinfonikoarekin hasiko da, espreski kontzertu-aretoetarako sortua: ***Inferno. Jung Jae il Parasitoak filmerako eta Kalamarraren jokoa telesailerako idatzitako soinu-bandengatik da ezaguna.*** Seoul Philharmonic Orkestraren enkarguz idatzia, *Inferno* hamabost bat minutuko *orkestra-freskoa* da, Italo Calvinoren *Hiri ikusezinak* eleberriaren amaieran inspiratua, hiri garaikideari buruzko hausnarketa, eguneroko "infernu" gisa. Bere hizkuntzak minimalismotik hartutako testurak eta zinema-arrasto sendoa konbinatzen ditu, eta orkestrari eremu ezin hobe eskaintzen dio bere ahalmen erritmikoa zabaltzeko. Van Zwedenen arabera, "arriskurik handiena ez arriskatzea da. Gure garaiko orkestrak musika-aukera zabala interpretatzeko gai diren kamaleoi bihurtu behar dira, iraganeko obra klasikoetatik hasi eta gaur egungo pieza garaikideetaraino, eta Jung Jae-il azken horien adibide garbia da".

Ondoren, Jaap van Zwedenek **Mozarten 40. Sinfonia sol minorrean** ospetsuaren bere ikuspegia aurkeztuko du: Salzburgoko jeinuaren sorkuntzarik perfektuenetakoa, 1788ko udan sortu zuen sinfonien azken trilogia harrigarritik abiatzen da, eta musika klasikoaren historiako melodia ahaztezinenetako batzuk biltzen ditu.

Egitaraua Erromantizismoaren bi partitura nagusirekin osatuko da: **Mendelssohnen Biolinerako kontzertua mi minorrean, op. 64**, 1838 eta 1844 urteen arteko ernaldi prozesu luze baten emaitza, Leipzigen estreinatu zen 1845ean, Ferdinand David violinista bakarlari zela, eta, bertuosismoaren eta sakontasun lirikoaren orekari esker, Beethovenek finkatutako ereduaren ondorengo zuzen gisa agurtu zuten. Hainbat berrikuntza ditu: bakarlariaren sarrera ia berehalakoa eta mugimenduen arteko etenaldirik eza, esaterako; obrak lehen mugimenduaren asaldura grinatsutik amaieraren arintasun distiratsura doan adierazpen-arku bat marrazten du, ia "hitzik gabeko kanta" orkestrala den *Andantea* barne. Kontzertuan bakarlari ariko da **Bomsori Kim** biolinista, hegokorear interpreteen belaunaldi berriko izen ezagunenetakoa bat. Nazioarteko hamar bat lehiaketa handitan saritua — besteak beste, Moskuko Chaikovski, Bruselako Queen Elisabeth, Municheko ARD edo Helsinkiko Sibelius —, eta 2021az geroztik Deutsche Grammophonen artista eskusiboa, Bomsorik ibilbide oparoa eginga du Europako, Ipar Amerikako eta Asiako areto nagusietan. Errepertorio erromantikoko bere grabazioak goraipatu ditu kritikak distira teknikoak, kolore-ahaztasuna eta sentsibiltate lirikoak konbinatzeagatik, eta ezaugarri horiek ezin hobeto egokitzen dira guren interpretatuko duen Mendelssohnen kontzertuaren izaerarekin.

Kontzertuaren amaiera gisa, orkestrak **Erromako pinuak** interpretatuko du, **Respighiren trilogia erromatar ospetsuaren bigarren poema sinfonikoa**. Piezak gonbidapena luzatzen du betiereko hiriko lau tokitan barrena musikazko bidaia bat egitera: Villa Borgheseko lorategietako haur-jolasak, katakonben ondoko pinuen solemnitatea, Gianicolon gauari so geratzea eta Via Appian barrena zihoazen erromatar legioen oroitzapena berreskuratzea.

Abuztuaren 25 asteartea, 20:00. Kursaal Auditorioa

SEOUL PHILHARMONIC ORCHESTRA
JAAP VAN ZWEDEN zuzendaria
BOMSORI KIM biolina

Abuztuaren 26 asteazkena

Seoul Philharmonic Orchestra minimalismoan murgilduko da berriro ***The Wound Dresser***, **Walt Whitmanen bertsoak oinarri hartuta 1989an John Adamsek konposatu zuen baritono eta orkestrarako lana**. Olerkiak, poetak Sezesio Gerran kanpaina-ospitaleetan bolondres gisa izandako esperientzietatik abiatuta idatzia, soldadu zaurituentzako sendabide-, kontsolamendu- eta laguntza-lana deskribatzen du, gerraren indarkeria giza errukiari eta duintasunari buruzko gogoeta bihurtuta. Obraren ahots-molde ia deklamatuak adierazpen-bide aparta aurkituko du **Matthias Goerne** baritonoaren ahotsean; alemaniar interpretea *Lieder* eta oratorioko erreperorioaren maisu ukaezina da gaur egun.

Ondoren, **Beethovenen 9. Sinfonia re minorrean op. 125, "Korala"** izango da entzungai, mendebaldeko erreperorio sinfonikoaren monumentu eztaba daezinetako bat eta obra enblematikoa anaitasun unibertsalaren aldeko mezua zabaltzeagatik. 1822 eta 1824 bitartean konposatua, **Bederatzigarren Sinfoniak** forma klasikotik abiatuta hedatutako sinfoniaren eredurantz egindako ibilbidea amaitzen du. Azken mugimenduan, lehen aldiz, bakarlari laukote bat eta Schillerren poema baten gainean idatzitako musikazko *Alaitasunaren oda* ospetsua abesten duen koru bat gehitzen dira. Amaiera hori sarritan interpretatu izan da gizaki guztien batasunerako nahiaren musikazko irudikapen gisa, eta ideia horrek askatasunaren eta adiskidetzaren sinbolo bihurtu du obra hainbat testuinguru historikotan. Hamabostaldiaren esparruan, **asiar orkestra bat, euskal abesbatza bat eta nazioarteko ahots bakarlari-taldea eszenatokian direla, Bederatzigarrena** musikaren unibertsaltasunaren eta kulturen arteko elkarriketaren ospakizun gisa aurkeztuko da gurean.

9. Sinfonian nazioartean proiektzio handia duen ahots-laukote bat ariko da: **Gloria Jieun Choi** soprano hegokorearra bere belaunaldiko ahots oparoenetako bat izan da azken urteotan, Viñas Tenorra Nazioarteko Kantu Lehiaketa ospetsuaren azken-aurreko edizioaren irabazlea eta lehen mailako antzoki europarretan ohikoa. **A Kyeong Lee**, berriz, ibilbide luzeko mezzosopranoa da, nazioarteko lehiaketa askotan saritua, eta opera-erreperorio zabal bat interpretatzen du Koreako Opera Nazionalan eta Italiako koliseoetan. **Ji Hoon Son** Montserrat Caballé Nazioarteko Kantu Lehiaketaren irabazlea da, eta une honetan sona gehien duten tenor lirikoetako bat, erregistro altuan duen nagusitasunagatik; eta lehen aipatutako **Matthias Goerne**. Atal koral ospetsua **Easo Abesbatzak** kantatuko du; erreperorio sinfoniko-koralean erreferentziazko donostiar formazioa, 1940an sortu zen Easo, eta sari eta bira ibibide luzea du Europan barrena. Zortzi hamarkadatan gora, lan artistiko eta pedagogiko handia egin du, hainbat tipologiatako hamar abesbatzen eta Easo Musika Eskolaren inguruan antolatuta. Ohikoa da Musika Hamabostaldian eta aurren Juan Crisostomo Arriagaren omenezko kontzertu monografikoan eta Berliozen *Requiem*ean parte hartu du, *Zomozorroak* kontzertu pedagogiko dramatizatua estreinatzeaz gain.

Kontzertu honetan Hamabostaldiak laguntzaile du **SER – Radio San Sebastián**.

Abuztuaren 26 asteazkea, 20:00. Kursaal Auditorioa

SEOUL PHILHARMONIC ORCHESTRA

EASO ABESBATZA (Gorka Miranda, abesbatza zuzendaria)

JAAP VAN ZWEDEN zuzendaria

GLORIA JIEUN CHOI sopranoa

A KEYONG LEE mezzosopranoa

JI HOON SON tenorra

MATTHIAS GOERNE baritonoa